

ARAGI-JALEAK

Abere edo pizti batek larrako bedarra jatea egokitzat artzen dogu. Baiña landara batek aragia jatea? Eziña dala dirudi.

Gai oneri buruz ipuin asko zabaldu dira munduan. Ego-Ameriketan esaten da “eriotz-lorak” deritxenak aragia eio naiz iruntzi egin leikeela, baita Guaiana’ko orri batzuk tximiñoia arrapatzen dabela edo Mexiko’n diran zuge-antzeko landara batzuk euren beso luze artean arrapatzen dabena ito egiten dabela.

Gure artean landara aragi-jaleak ez dabe bildur aundirik emoten, txikiak diralako., baiña kontuan artu bear da landara onein arazoa.

Izen politak daukez: intz-lorea, eguzki-intza, rosela, gorrituna... landara oneik orri ibiltariak daukez, azurba-koak, eta batez be zorroak arrapatzen dabez. Ori egiten daben orri batzuk txiki ta biribillak dira, beste batzuk, esaterako Ameriketa’n dagozan mota batzuk, ogeta amasei zm.’ko luzerea dauke.

Batzuk zeozer arrapatzen dabenean euren barrura sartzen dabe, beste batzuk geldigeldi egoten dira eltxoren bat noz etorriko euren usain gozoko zulora. Sumatra ta Madagaskar’en barrez jazoten dan estalki bat zabaltzen dabe. Onei biska-eiztariak deritxe eta eiztarako zabaltzen daben orria gorria da.

Baiña arrigarriena zingiretako zorroa da, onek ez dauz jaten arrapatzen dauzanak. Eiza ori jolasbide bat daña dirudi.

LARRA-BEDARRAK

Guztiok oinpean erabilten doguz bedar oneik. Eta bedar-mota ugaria da landetan eta basa-oianetan. Iñok

ez dautse garrantzirik emoten, begiratu be ez.

Korapillo batzuk dauz lurtean eusgarri. Eta ari-antzeko batzuk zabaltzen dauz. Eta azkenean burutxu bat argitaratu.

Iñurriak euren moltzoak egiten dabez iges-leku, eta etxe ezkutu biurtzen dira eta beste abere askorentzat mai zabal. Eta orrelan zabaltzen da bedarren azi txikia inguru guztietara.

Zoragarriak dira gure landetako bedar txiki oneik. Oloaren loretan jartzen dira aziak eta errez jausten dira lurrera eta bedar ebagi-barria

usain gozokoa izaten da.

Arratsaldean bedar oneik metatu egiten dira eta kirkillak abi-arteak kantari dabiltz zelaiak eta soloak bakean dagozen artean.

Argentina’n ez da ereiten alfalfa-bedarra baiño, Brasil’en kaktus zaintzea naiago dabe...

Baiña landa zabal orlegiak gau baketsuan artegien txilin-otsa dakarre goi-zelaietan.

Zuek guztiok, landarak, bedarra, zaree, lur-bira osoa estaltzen dauan bedarra.

OLAZAR’tar Martin’ek moldatua



Palmondoa bere datil-frutarekin eta platanondoa frutu-mordo batekin.